OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: 72
Nork aurkeztu du:
Dirección General de Planificación y Evaluación de la Red Ferroviaria
Aurkezpen data: 2022/01/28

Sugerencia Nº: 72
Presentada por:
Dirección General de Planificación y Evaluación de la Red Ferroviaria
Fecha de presentación: 28/01/2022

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Idazkia bidaltzaileak administrazio interesduna den aldetik egin duen nahitaezko txostena da. Txosten horretan zenbait zehaztapen egiten zaizkio LPParen hasierako onespenaren dokumentuari. Zehaztapen horiek bereizi egiten dira jatorriaren arabera: batzuk LPP honen aurreko bertsio bati 2020ko urriaren 5ean egindako oharrak kontuan hartzetik datoz, eta besteak gaur egungo dokumentua irakurtzetik sortu dira.

Txosten horren ondorioan, bi alderdi mota bereizten dira: batetik, garrantzi gutxien duten alderdiak, zeinak kontuan hartzeak kalitate handiagoa emango baitio LPPari, eta, bestetik, kritikotzat jotzen diren alderdiak, zeinen zuzenketaren mende geratzen baita plan honen aldeko txostena. Txostenean, gainera, 2020ko urrian adierazitako eta LPPan fideltasunez jasotako alderdiak zehazten dira.

Alderdi kritikoak eta haiei buruzko zehaztapenak

- Estatuko legeria sektoriala
  - Eskatzen da antolamendu-arauetan ere sar dadila Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legeari eta Trenbide Sektorearen Erregelamenduari (2387/2004 Errege Dekretua) egiten zaion berariazko aipamena, zeina dagoeneko jasota baitago LPParen memorian.
  - LPParen antolamendu-arauetatik honako hau eransteko eskatzen da: interes orokorreko trenbide-sareko (IOTS)

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

El escrito se corresponde con el informe de carácter preceptivo que el remitente realiza en su calidad de administración interesada. En este informe se realizan una serie de puntualizaciones al documento de aprobación inicial del PTP; éstas se distinguen según provengan de la toma en cuenta de las indicaciones hechas a una versión anterior de este PTP, con fecha 5 de octubre de 2020, o si resultan surgidas de la lectura del documento actual.

En la Conclusión de dicho informe se distinguen los aspectos menos relevantes, pero cuya consideración aportará una mayor calidad al PTP, de aquellos considerados críticos y a cuya corrección queda condicionado el informe favorable a este plan. Se especifican en el informe, además, los aspectos señalados en octubre de 2020 y fielmente recogidos en el PTP.

Aspectos críticos y especificaciones realizadas sobre los mismos

- Legislación sectorial del Estado
  - Se solicita que la mención expresa a la Ley 38/2015, del Sector Ferroviario y el Reglamento del Sector Ferroviario (RD 2387/2004), ya recogida en la Memoria del PTP, sea también incorporada en sus Normas de Ordenación.
  - Se solicita incluir de las Normas de Ordenación del PTP que las infraestructuras ferroviarias pertenecientes a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XXGO-IPJ9-AJ03-2DUX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

trenbide-azpiegiturak ez daudela LPParen plangintzaren mende, ezta EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren (TSLAP) mende ere, baizik eta aurreko puntuan aipatutako legeria sektorialaren eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren informazio-azterlanen mende.
  - Antolamendu-arauetan espresuki sartzea Legean jasotako trenbidea babesteko eremuen definizio idatzia eta grafikoa.

- LPParen memoriari egindako zuzenketak:
  - Memorian egindako deskribapenean zuzentzea IOTSaren administratzaile eta operadoreei buruzko zenbait zehaztasun falta.
  - Zehaztea LPParen izaera arauemailea eta loteslea ez dela halakoa IOTSari dagokionez (8.4.2.5. apartatua).

- LPParen antolamendu-arauei egindako zuzenketak:
  - Zehaztea LPParen izaera arauemailea eta loteslea ez dela halakoa IOTSari dagokionez (3.2., 75.4 eta 76.2 artikuluak).

- LPParen azterketa ekonomiko-finantzarioari egindako zuzenketak:
  - Argi eta garbi adieraztea, ezarritako inbertsio ekonomikoekin egiten den bezala, IOTSko jarduketei dagokien epea gutxi gorabeherakoa dela.

Eskatzen da, gainera, eguneratu dadila Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbideari buruzko informazio-azterlanari (1. fasea) egindako erreferentzia, haren osagarri den beste azterlan bat aipatuz, Ortuella aldeko trazadurari buruzkoa, 2021eko urriaren 16an behin-behinean onetsi zena.

<u>Proposamenaren kalitatea hobetzeko LPPan kontuan hartu beharreko alderdiak</u>

- 2020ko urriko txostenean eskatutako gaiak, ez baitziren fideltasunez jaso LPParen hasierako onespenaren dokumentuan:

  - Lurzoruaren hirigintza-sailkapenen ar-

Red Ferroviaria de Interés General (RFIG) no están sujetas a la planificación del PTP, ni tampoco del Plan Territorial Sectorial (PTS) de la red ferroviaria en la CAPV, sino a la legislación sectorial referida en el punto anterior y a los Estudios Informativos del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana.
  - Incorporación expresa en las Normas de Ordenación de la definición escrita y gráfica de los distintos ámbitos de protección al ferrocarril incluidos en la Ley.

- Correcciones a la Memoria del PTP:
  - Corregir en la descripción realizada en la Memoria diversas inexactitudes en referencia a los administradores y operadores de la RFIG.
  - Matizar que el carácter normativo y vinculante del PTP no lo es respecto de la RFIG (apartado 8.4.2.5).

- Correcciones a las Normas de Ordenación del PTP:
  - Matizar que el carácter normativo y vinculante del PTP no lo es respecto de la RFIG (artículos 3.2, 75.4, y 76.2).

- Correcciones al Estudio económico-financiero del PTP:
  - Incluir de forma clara, al igual que se hace con las inversiones económicas establecidas, que el plazo correspondiente a las actuaciones en la RFIG es orientativo.

Se requiere, además, la actualización en la referencia al Estudio Informativo de la Variante Sur Ferroviaria de Bilbao. Fase 1, con la mención a otro estudio informativo que lo complementa, referente al trazado en el entorno de Ortuella, aprobado provisionalmente el 16 de octubre de 2021.

<u>Aspectos a considerar en el PTP para una mejor calidad de su propuesta</u>

- Cuestiones solicitadas en el informe de octubre de 2020 y no recogidas fielmente en el Documento de Aprobación Inicial del PTP:
  - La diferenciación entre las distintas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XXGO-IPJ9-AJ03-2DUX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

teko bereizketa, ingurune fisikoaren eta landa-habitataren antolamendu-planoan.
- Renferi buruzko aipamen guztiak ordeztea ADIF (zabalera konbentzionala) jarriz. Izan ere, oraindik badira aipamen oker batzuk 13. planoan.

- 2020ko urriko txostenean eskatutako gaiak, LPParen azterketa ekonomiko-finantzarioan IOTSari dagozkion jarduketak sartzeko aukerarekin lotuak:

  - "Santurtzi hirigintza-hesia kentzea, tren-geltokiaren eta kanpoko portuaren arteko tartea kenduz" jarduketaren iturria aipatzea.

  - Abandoko tren-geltokirako sarbidea berritzeari dagokionez, dagokion informazio-azterlanaren izendapena zorroztasunez idaztea.

<u>2020ko urrian adierazitako eta LPPan fideltasunez jasotako alderdiak:</u>

- LPParen antolamendu-arauei buruzkoak:

  - 38/2015 Legearen 7.1. artikulura igortzea, zeina IOTSak okupatzen dituen lurzoruen kalifikazioari buruzkoa baita.
  - 38/2015 Legearen 12.-18. artikuluetara igortzea, zeinak trenbidea babesteko jabetzari jarri behar zaizkion mugei buruzkoak baitira.
  - Lapatzan (Basauri) terminal logistiko bat eraikitzeko aurreikuspena kentzea, bai dokumentazio idatzian, bai grafikoan.
  - Plataforma esklusiboko garraio kolektiboa (PEGK) ezartzeko aldirietako C1 eta C2 lineak tranbia bihurtzea, gaur egungo zerbitzuak desagertuz gero garatuko litzatekeen hipotesi gisa bakarrik.

  - IOTSari dagokion "ekintza lotesleak" atala kentzea.
- LPParen memoriari buruzkoak:
  - Trenbide-sare berriaren aipamena kentzea, LPSak LPPari nagusitzen zaizkion kasuetan.
  - IOTSaren eta EAEko gainerako trenbide-sarearen arteko bereizketa egitea, bai plangintzari dagokionez, bai operadoreen araberako analisiari dagokio-

clasificaciones urbanísticas del suelo en el plano de ordenación del medio físico y hábitat rural.
- Completar la sustitución de las alusiones a Renfe, por ADIF (Ancho convencional), corrigiendo las que permanecen en el plano13.

- Cuestiones solicitadas en el informe de octubre de 2020 relacionadas con la opción de incluir en el Estudio Económico Financiero del PTP las actuaciones correspondientes a la RFIG:
  - Incluir la fuente de la actuación de la "Supresión de la barrera urbanística en Santurtzi, mediante la eliminación del tramo existente entre la estación ferroviaria y el Puerto Exterior".
  - En relación con la renovación de la llegada a la estación de Abando, redactar de forma rigurosa la denominación del correspondiente estudio informativo.

<u>Aspectos señalados en octubre de 2020 y fielmente recogidos en el PTP:</u>
- Relativos a las Normas de Ordenación del PTP:
  - La remisión al artículo 7.1 de la Ley 38/2015, referente a la calificación de los suelos que se ocupen por la RFIG.
  - La remisión a los artículos 12 a 18 de la Ley 38/2015, referentes a las limitaciones a la propiedad para la protección al ferrocarril.
  - Eliminación de la previsión de una terminal logística en Lapatza (Basauri), tanto en la documentación escrita como gráfica.
  - Tranviarización de las líneas de cercanías C1 y C2 para la implantación del Transporte Colectivo en Plataforma Exclusiva (TCPE) únicamente como hipótesis a desarrollar en el supuesto de desaparición de los actuales servicios.
  - Eliminación del apartado de "acciones vinculantes" referido a la RFIG.
- Relativos a la Memoria del PTP:
  - Eliminación de la referencia a la Nueva Red Ferroviaria en los casos de prevalencia de los PTS frente al PTP.
  - Diferenciación entre la RFIG y el resto de la red de la CAPV, tanto en materia de planificación como en lo referente al análisis por operadores.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XXGO-IPJ9-AJ03-2DUX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

nez.
- Trenbide-sarea deskribatzean, “Sareen eta operadoreen arabera” ikuspegia kentzea.
- IOTSaren eta EAEko gainerako trenbide-sarearen arteko bereizketa egitea.
- Plataforma esklusiboko garraio kolektiboa (PEGK) ezartzeko aldirietako C1 eta C2 lineen beharrezko tranbiarizazioa baztertzea.
- Bilbo eta Kantabria lotzeko etorkizuneko trenbide-konexioan salgaien eta bidaiarien trafikoak bateragarri egiteko beharra kentzea.
- LPParen azterketa ekonomiko-finantzarioari buruzkoak:
  - Ezarritako inbertsioak orientagarriak direla adieraztea.
  - Jarduketak bere gain hartzeko erantzukizuna hitzarmenen bidez ezarriko dela seinalatzea.
  - Zenbait akats terminologiko zuzentzea.
- LPParen planoei buruzkoak:
  - Lapatzako terminal logistikoa eraikitzeko eta aldirietako C1 eta C2 lineak tranbia bihurtzeko proposamenak kentzea.
  - Feveren eta Renferen aipamenen ordez ADIF (zabalera metrikoa) eta ADIF (zabalera konbentzionala) jartzea, hurrenez hurren.

- Eliminación del punto de vista “Por redes y operadores” en la descripción de la red ferroviaria.
- Distinción entre la RFIG y el resto de la red ferroviaria de la CAPV.
- Exclusión de la necesaria tranviarización de las líneas de cercanías C1 y C2 para la implantación del Transporte Colectivo en Plataforma Exclusiva (TCPE).
- Eliminación de la necesidad de compatibilización de tráficos de mercancías y pasajeros en la futura conexión ferroviaria entre Bilbao y Cantabria.
- Relativos al Estudio económico-financiero del PTP:
  - Constancia de que las inversiones establecidas tienen carácter orientativo.
  - Indicación de que la responsabilidad en la asunción de las actuaciones se fijará por convenios.
  - Corrección de diversos errores terminológicos.
- Relativos a los planos del PTP:
  - Eliminación de las propuestas de terminal logística en Lapatza y de tranviarización de las líneas de cercanías C1 y C2.
  - Sustitución de las alusiones a Feve y Renfe, por ADIF (Ancho métrico) y ADIF (Ancho convencional) respectivamente.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

LPParen hurrengo bertsioan aldatu egingo dira txostenean kritikotzat adierazitako IOTSari buruzko alderdi guztiak:

- Antolamendu-arauetan espresuki sartzea Trenbide Sektorearen 38/2015 Legearen eta Trenbide Sektorearen Erregelamenduaren (2387/2004 Errege Dekretua) aipamena.
- IOTSa aipatutako legeria sektorialari eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren informazio-azterlanei bakarrik lotzea.
- Trenbidea babesteko eremuen eta 38/2015 Legeak jabetzari ezarritako mugen definizio idatzia eta grafikoa sartzea.
- Memorian egindako deskribapenean, antolamendu-arauetan eta planoetan

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

Se procederá a modificar en la próxima versión del PTP todos los aspectos relativos a la RFIG señalados como críticos en el informe:

- Inclusión explícita en las Normas de Ordenación de la referencia a la Ley 38/2015, del Sector Ferroviario y el Reglamento del Sector Ferroviario (RD 2387/2004).
- Vinculación de la RFIG de forma exclusiva a la referida legislación sectorial y a los Estudios Informativos del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana.
- Incorporación de la definición escrita y gráfica de los distintos ámbitos de protección al ferrocarril y las limitaciones a la propiedad establecidas por la Ley 38/2015.
- Corrección en la descripción realizada en la Memoria, así como en las Normas de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XXGO-IPJ9-AJ03-2DUX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

IOTSaren administratzaile eta operadoreei buruz ageri diren zehaztasun faltak zuzentzea, 13. planoan Renferi buruz dagoen erreferentzia okerra barne.

- LPParen memorian eta antolamendu-arauetan zehaztea LPParen izaera arauemailea eta loteslea ez dela halakoa IOTSari dagokionez, ez eta haren trenbide-azpiegiturei eragiten dieten jarduketei dagokienez ere.
- LPParen azterketa ekonomiko-finantzarioa eta egikaritze-programan argi eta garbi adieraztea IOTSko jarduketei dagokien epea orientagarria dela.
- "Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbideari buruzko informazio-azterlana. 1. fasea. Ortuellako saihesbidea" kontuan hartzea.

LPParen hurrengo bertsioan, kontuan hartuko dira proposamenaren kalitatea hobetzea ekarriko duten alderdiak:

- 13. planoan, Renferi buruzko aipamenak ordeztea ADIF (zabalera kobentzionala) jarriz.
- "Santurtzi hirigintza-hesia kentzea, trengeltokiaren eta kanpoko portuaren arteko tartea kenduz" jarduketaren iturria aipatzea.
- Abandoko tren-geltokirako sarbidea berritzeari buruzko informazio-azterlanaren izendapena zorroztasunez idaztea. "Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriari buruzko informazio-azterlana. Sarbideko korridorea eta Bilboko Abandoko geltokia".

Lurzoruaren hirigintza-sailkapenei dagokienez, adierazi behar da udal-plangintzen eskumen esklusibokoak direla eta LPPan planaren xede den lurralde-eredua interpretatzen lagundu nahi duen informazio gisa jasotzen direla.

Nolanahi ere, txostenean bertan jasotzen den bezala, antolamendu-arauen 130. artikuluan 38/2015 Legearen 7.1 artikuluan LPPa garatzen duten hirigintza-antolamenduko tresna orokorretarako xedatutako eskakizuna sartzen da.

Ordenación y en los planos de las diversas inexactitudes en referencia a los administradores y operadores de la RFIG, incluyendo la errónea referencia a Renfe en el plano 13.

- Especificación en la Memoria y las Normas de Ordenación del PTP de que el carácter normativo y vinculante del PTP no lo es respecto de la RFIG, así como las actuaciones que afecten a las infraestructuras ferroviarias de la misma.
- Matización de forma inequívoca en el Estudio Económico Financiero y Programa de Ejecución del PTP que el plazo correspondiente a las actuaciones en la RFIG es orientativo.
- Consideración del "Estudio Informativo de la Variante Sur Ferroviaria de Bilbao. Fase 1. Variante en Ortuella".

Se tomará en consideración en la próxima versión del PTP los aspectos que redundan en una mejor calidad de su propuesta:

- Sustitución de las alusiones a Renfe, por ADIF (Ancho convencional), en el plano13.
- Inclusión de la fuente de la actuación de la "Supresión de la barrera urbanística en Santurtzi, mediante la eliminación del tramo existente entre la estación ferroviaria y el Puerto Exterior".
- Redacción rigurosa de la denominación del estudio informativo de la renovación de la llegada a la estación de Abando: "Estudio Informativo de la Nueva Red Ferroviaria del País Vasco. Corredor de Acceso y Estación de Bilbao-Abando".

En lo referente a las clasificaciones urbanísticas del suelo, cabe señalar que resultan de competencia exclusiva de los planeamientos municipales y que en el PTP se incluyen como una información que pretende ayudar en la interpretación del modelo territorial objeto del plan.
En cualquier caso, tal y como en el propio informe se refleja, en el artículo 130 de las Normas de Ordenación se incluye el requerimiento, realizado en el artículo 7.1 de la Ley 38/2015, para los instrumentos generales de ordenación urbanística que desarrollen el PTP.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: XXGO-IPJ9-AJ03-2DUX
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus